



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



GIPUZKOA

Aurkibidea

4

Aurkezpena

6

Jarduerak

16

Erabiltzaileak

20

Zerbitzuak

25

Komunikazioa

30

Balorazioa



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



GIPUZKOA



MUSEOA

EUSKAL
ITSAS
MUSEOA
MUSEO
MARITIMO
VASCO

Aurkezpena



Euskal Itsas Museoa-Museo Marítimo Vasco

Euskal Itsas Museoa itsas ondarearen balioa azaleratzeko espazio bat da, parte-hartzaile, berritzaile eta gertukoa den modu batean hurbiltzeko aukera ematen duena. Bere programazioak lankidetzak eta inklusioa sustatzen ditu, eta kultura eta ezagutza desberdinak partekatu eta zabaltzeko helburua duten taldeek proposatutako jarduerak integratzen ditu.

Museo irekia eta gertukoa izateko eredua jarraituz, Euskal Itsas Museoak itsasoarekin lotura afektibo baten bidez ezagutzera hurbiltzea errazten du, itsas kultura dinamiko eta konprometitua eskaintzen duen zentro bihurtuz.

Museoaren jabetza Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. Kultura, Lankidetzak Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historiko Artistikoaren, Museoen eta Artxiboen Zerbitzuari atxikita dago.



Jarduerak



Datu orokorrak

Honakoak dira 2025ean egin ditugun jardueren buruzko datu orokorrak:

4

Aldi baterako erakusketa

271

Programazio eta jarduera

7

Haurrentzako eta familientzako tailerrak

3291

Pertsona bisita gidatu eta tailerretan



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARITIMO
VASCO




GIPUZKOA

Kultur programazioa

Aurten, Euskal Itsas Museoaren erakusketaren kultur programazioan "Mare Clausum: norena da itsasoa?" erakusketaren amaiera eta "Elkano-Urdaneta: ozeanoen aurkikuntza" erakusketa berriaren inaugurazioa izan dira nagusi.

Aldi baterako erakusketak



MARE CLAUSUM: Norena da itsasoa?

Erakusketa honek "norena da itsasoa?" galderaren inguruko hausnarketa eragin nahi du eta Europak zazpi mendetan zehar munduko ozeano guztietan barrena buruturiko hedapen eta menderakuntzan Euskal Herriak izandako erantzukizunari buruzkoa.

2024/07/05-2025/11/02



7653

Bisitari



ELKANO-URDANETA: ozeanoen aurkikuntza

Loaisa-Elkano espedizio (1525-1536) ez oso ezagunaren bosgarren mendeurrena ospatzen da, gizateriaren historian erabakigarria izan den itsas balentria.

Ozeanoz haraindiko zeharkaldi hori nola prestatu zen azaltzeaz gain, erakusketak Andres Urdanetaren ekarpena nabarmentzen du, bera izan baitzen ekialdeko eta mendebaldeko itsas ezagutzak uztartuz ozeanoak nabigazio globalera irekitzea ahalbidetu zuena.

2025/12/04-2026/10/04



596

Bisitari
abendutik
aurrera

Aldi baterako erakusketak

Erakusketa nagusiez gain, Euskal Itsas Museoko ganbaran tamaina txikiko erakusketak ere egon dira ikusgai:




ANIMALIAK ONTZIETAN

Erakusketa hau, Bartzelonako Museu Maritimek sortua eta Euskal Itsas Museoak egokitua, bi erakundeen arteko aurreko harreman baten fruitua da, non museoak piezak utzi zituen MMBeko erakusketa baterako.

Honela, animaliak izan dira gure erakusketaren protagonista, zaldiek, txakurrek, loroek, arratoiek eta beste animalia askok bizitako gorabeherak ezagutarazteko.

2025/02/04-2025/08/24



K-TOÑO. ESTROPADEN KOLOREAK

Juan Antonio Frade Villar marrazkilaria, kartelgile, karikaturagile, liburu-ilustratzaile eta idazle kostunbrista ospetsuari eskainitako erakusketa.

Orioko Arraun Elkartetik eta bilduma partikularretatik etorritako 20 ilustrazio original bildu ditu erakusketak, bere estilo berezia islatzen dutenak. Irudi multzo honek arraunaren eta estropaden indarra eta grina erakusten ditu.

2025/09/04 - 2025/11/02



Musealiak gunea



MUSEALIAK

Musealiak proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren museoetan garatu da eta museo bildumetako objektuen istorioak kontatzen ditu, haien funtsetara iristen direnetik erakusketa egiten den arte.

Aurten, dohaitza eta pieza bitxi ugari egon dira ikusgai gunea honetan. Gainera, urte bukaeran *Musealiaken* kokalekua aldatu da 1.solairuko kanpandorrearen txokora.

Urte osoan zehar



Aldi baterako erakusketei lotutako ekintzak



“Mare Clausum” programazioa. Hitzaldia

“XXI. mendeko nazioarteko harremanei buruzko azterketa bat” hitzaldia. Juanjo Álvarez Rubio (Globernance). Asteazkena, otsailak 12.



“Mare Clausum” programazioa. Komisarioarekin bisita

“Euskal zubia”: Euskal Herriaren funtzioa norgehiagoka ozeanikoetan Xabier Alberdirekin. Asteazkena, martxoak 19.



“Mare Clausum” programazioa. Hitzaldia

“Gizakiaren eragina ozeanoetan” Ángel Borja (AZTI). Asteazkena, apirilak 9.



“Mare Clausum” programazioa. Komisarioarekin bisita

“Garapen teknologikoa eta ozeanoetako nagusigoa” izeneko bisita Xabier Alberdiren eskutik. Asteazkena, maiatzak 7.



“Mare Clausum” programazioa. Hitzaldia

Hitzaldia. “Krisi humanitarioa itsasoan”. Iñigo Mijangos (SMH. Aita Mari). Asteazkena, ekainak 11.

Bestelako proiektuak



IPUSCUA 1025-2025

IpuscuA 1025-2025 ekimenean, puntu geolokalizatuak dituen mapa baten bidez, museoak Gipuzkoako kostaldea deskubritzeko eta garai horretako itsas mundua ezagutzeko gonbita egiten du. Puntu bakoitzak fitxa bat izango du, gaur egun IpuscuA hartatik ezagutu daitezkeen elementuei buruzko informazioarekin. Fitxa horretan monumentuaren argazkiak eta Ander Izagirre idazle eta kazetariak garatutako elementu horien bitxikerien kontakizuna aurkituko ditugu. Gainera, Mapak webgunean ikus daitezke eta harreran dagoen espositore bateko pantailan.



#KONTXA100

Bederatzigarren urtez, Euskal Itsas Museoak eta Aquariumek #KONTXA100 proiektua burutu da. 100 urte lehenagoko Kontxako Estropaden ondare kulturala agerian jartzea helburu duena. Arraunaren iraganari eta orainari lotutako jarduera ugari egongo dira. Irailaren 4tik irailaren 14ra bitartean gauzatu da.

Arraun astea izeneko programazio berezia eskaini da ere: Ciaboga aldizkariaren publikazioa, erakusketa, familia tailerrak, estropadak leihotik, etab.



Bestelako jarduerak



MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

“Museoen etorkizuna, etengabe eraldatzen diren komunitateetan” leloari jarraituz “Mare Clausum” erakusketara bisita eta “Portura begira” familia tailerra eskaini dira.

Tailer honetan argazkigintza tailer bat eskaini da iraganeko postalak eta familiek gaur beraiek ateratako argazkien bitartez, Donostiako Kaiaren eraldaketa prozesua ikusteko.



BIZI DONOSTIAKO PORTUA

Bostgarren urtez, Euskal Itsas Museoak, Kofradia Itsas-Etxeak eta Isturitz Anaiek, Donostiako portua zentzumenen eta esperientzien bitartez ezagutzeko aukera eman dute. Udan zehar bi larunbatetik behin gaztelaniazko eta ingelesezko bisitak, bi ostegunetik behin, eskaini dira.



ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

“Iraganera leihoak, etorkizunerantz atek” leloa abiapuntu hartuta aurtengo ondare arkitektonikoa jarri da erdigunean. Beraz, Portuko dorretxea zenaren historia eta arkitekturarekin loturiko bi tailer eskaini dira: lehenengoan eraikinaren historia aztertu da bisita-tailer baten bitartez eta bigarrenean eraikineko lorategia aztertu da biologo baten laguntzaz.

Hezkuntza proiektua

2025ean zehar, hezkuntza proiektuak bi ildo nagusi izan ditu: batetik, tailer berrien egokitzapena erakusketa berriaren harira; eta bestetik, lehendik zeuden tailerren berrikuspena, hezkuntza zentroetako programetara hobeto egokitzeko.

Donostialdeko ikastetxeak, bereziki Donostiakoak, izan dira gehien etorri diren taldeak. Hala ere, aurtengorakada nabarmena izan dute Goierri eta Urola-Kostako ikastetxeek ere. Horrek hezkuntza mailen aniztasuna handitzea ekarri du. Lehen Hezkuntzako eta DBHko taldeak izan dira ugariak.

51

Talde

1102

Ikasle

Tailer arrakastatsuenak



Erakusketara bisita

Bisita gidatuak, aldi baterako erakusketen eta bisitarien arteko komunikazio tresna dira. Bisita hauek talde bakoitzaren errealitatearen arabera egokitzen dira.



Nabigatzaileen tailerra

Euskal nabigatzaile esanguratsuenak ezagutzeaz gain hauen egunerokoaren berri izango duzue. Zergatik bidaiatzen genuen hain urrun? Nola gidatu ozeanoaren erdian? Nolakoa izan zitekeen hainbeste hilabetetako bidai bai itsasontzi batean?



Pasaiaitik ternuara

Lau mendeetan zehar Ternuako uretan euskaldunek garatu zituzten jarduera ekonomikoetan barneratzen gara. Tailer hau esperientziala da, beraz ikasleek ezagutza guztiak dastamenaz edo ukimenaren bitartez barneratzeko aukera izango dute.



UR UMEAK PROIEKTUA

Gure hezkuntza programa iraunkorraz gain, aurten Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolara ere gerturatu gara, eta bertan 6 asteko programa espezifiko bat garatu dugu. Proiektu honen helburua ikasleek Urumea ibaiaren zein Martuteneko auzoaren memoria berreskuratzea izan da. Jarduera honi esker ikasleek memoria oralaren zein beren auzoaren garrantzia barneratu dute, eta belaunaldi desberdinetako bizilagunak batzea lortu dugu.

Proiektu honetan lau gai landu dira: Ikastolaren historia, urumeako uholdeak, lizeaga sagardotegia, Urumean jaiak eta aisialdia, batik bat, eta hauetan sakontzeko ikasleek pertsona zehatzei elkarrizketak egin dizkiete.



Belaunaldi arteko elkarrizketak

Elkarrizketak proiektu honen ardatz izan dira. Bertan ikastolako irakasle ohia, bizilagunak edo ibaian zehar lan egiten duten pertsonak protagonistak izan dira.



Prestaketa

Elkarrizketa bat egiteko tresnak eman zaizkie: informazioa nola bilatu, elkarrizketa bat sortu, etab.



Bideo emanaldia


Proiektua udaberriko festibalean beste ikasle eta gurasoen aurrean aurkeztu zen. Bertan bideo emanaldia eta erakusketa bat egin zelarik.

Familia tailerrak



Mozorro tailerra

Tailer Honen birartez piaratak eta kortsarioak ezagutu genituen hauetako batean bihurtuz. Inauterietako tailer honen bitartez, gure pirata mozorroak eraiki genituen, familia artean.



Animaliak ontzietan

Tailer hau Animaliak ontzietan erakusketarekin loturiko lehen jardunaldia izan zen. Bertan Itzalen-antzerkiaren teknika erabili genituendugu animaliek itsas-bidaletan izandako historioak irudikatzeko.



Orientazio tailerra

Nabigazio astronomikoa mendeetan zehar erabili zuten marinelek, nabigazio-sistema modernoak asmatu aurretik. Tailer honen bitartez nabigatzaileen teknika guzti horiek ikasi ziren.



Estropadetako kartelak

Aquariumarekin batera egindako tailer honetan historian zehar egon diren estropadetako kartelak aztertu ziren, ondoren haurrek beren kartel propioa sortu zezaten. Tailer hau Kontxa100 proiektuarekin barnean egin zen.



Mare Clausum scape room

Mare Clausum erakusketa bisitatzeko mapa interaktiboa aurkeztu zen, haurrei erakusketa modu ludiko batean arakatzeko aukera emanez.



Portura begira

Tailer honetan haurrek beren portuko-karteta sortuko zuten, portuko hainbat leku esanguratsu bisitatu. Tailer honen bitartez haurrek portua ezagutzeaz gain gure auzoa bere ikuspegitik antzematen lortu zuten.



Ciaboga tailerra

Ciaboga aldizkaria oinarritzat hartuta collage tailer bat egin genuen XX. mendeko publizitatea lantzeko.

Lankidetza sarea

Museoak programazio parte hartzaile eta kolaboratzailearen aldeko apustua egin du. Horretarako, elkarte eta kultur eragile ezberdinekin lankidetza estua mantentzen du, ekimenak modu bateratuan sortuz eta komunitatearen inplikazioa bultzatuz.

Kolaboratzaileak ezagutu



Atelier des Jours à Venir

Ozeanoaren parlamentu berrian parte-hartzea proposatu zuten. Proiektua gaur egungo ozeanoaren egoeraz hausnartzeko sortu da eta horregatik disziplina ezberdinetako profesionalak batu egin ditu: biologia, arkeologia, artea, historia, arrantza.



Donostiako portuko eragileen lan-taldea

Kofradia Itsas-Etxea, Motoras de la Isla, Navegavela, Aquarium, Alokayak, etab, elkarteekin egiten dugu lan #KONTXA100, Bizi Donostiako portua, European Maritim Day bezalako proiektu ezberdinetan.



Hezkuntza sarea

Arantzuko Ama Ikastetxea, Donostiako Udalak bultzatutako *Oporretan euskaraz*, Kofradiako *Izan Arrantzaile* udalekuak, Virginia Garcia edo Aquariumekin sortutako familia tailerrak.



Lagatzaileak

Gordailua, San Telmo Museoa, KMK edota Arantzazuko liburutegiko erakundeekin kolaborazio erakusketerako piezen prestamoan. Baita, Orioko Arraun Elkarte eta Museu Maritim de Barcelona ganbarako erakusketetan ere.

Beste kolaborazioak:

- Matxitxako Elkartea, Bou Gipuzkoa eskulturaren instalazioan museoaren ordezkaritza.
- "El patrimonio cultural y los museos ante la (in)sostenibilidad" jardunaldietara asistentzia. PATRIM sarea.
- Museotik. Euskadiko museoaren katalogo kolektiboa
- Ababar Feria. Ficoba
- Ondarhez: Euskal ondare hezitzaileen elkarteak antolatutako formakuntza



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA



MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



Erabiltzaileak





Bisitariak

Museora etorritako 12 171 bisitariak bertan dauden erakusketak eta euskal historiaz gozatzeko aukera izan dute. Gipuzkoarrak izan dira gehien gerturatu direnak, frantses, madrildar, katalunia edota Estatu Batuetako bisitariekin, batera.


Museoko publikoak denboraldien arabera aldatzen da. Udako garaian, nagusiki turismo nazionala eta internazionala bisitatzen du modu librean, eta gainerako urtean bisitariak bertakoak normalean jarduera programatuetan edo eskaera bidezko bisita gidatuetan parte hartzen dute.

12 171

Bisitari



Adin tartekak




Sexua




5998
EMAKUME



6173
GIZON



Azken urteetako garapena



43 Talde

8249 Banako

Gogobetetze datuak

Orokorrean bisitarien gogobetetze maila altua da; erakusketen edukiak interesgarriak iruditzen zaizkie eta Museoan egindako jarduerekin zein emandako harrerarekin gustura sentitu dira. Hala ere komentario negatiboak ere aurkitu daitezke, gehienengoek Museoa txikiegia dela adieraziz.

Google my bussines profilak 4,2 izar ditu batazbesteko:

4,2 ★★★★★ (418 reseñas)

LARA RODRIGUEZ

Local Guide • 163 reseñas • 222 fotos

★★★★★ Hace 37 semanas

El Museo Marítimo Vasco es un paseo muy recomendable para entender la conexión tan profunda que San Sebastián tiene con el mar. Tiene una colección interesante y bien cuidada, con piezas, maquetas y herramientas de navegación. Me pareció muy didáctico y visual, ideal incluso para ir con niños. Se recorre en poco tiempo y te deja una sensación de respeto por la tradición marinera vasca



Igor San José

Local Guide • 11 reseñas • 62 fotos

★★★★★ Hace 34 semanas

El pasado 16 de Mayo participe junto a mis compañeros de Agora Txingudi (asociación para la conservación del patrimonio histórico de Hendaya) en una espléndida visita guiada. Aprendimos mucho dado el alto nivel de conocimiento de la historia de nuestra guía, su total dominio del idioma francés y el trato tan agradable que nos brindó. Lo recomiendo totalmente. Muchas gracias por esta experiencia tan enriquecedora.



Ekintzen ondoren Museotik bidaliko formularioen emaitzak. Batez-besteko nota:



EUSKAL
MUSEO
MARITIMO
VASCO



GIPUZKOA

Zerbitzuak



Zerbitzuak

Euskal Itsas Museoak zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu komunitatearekin harremana sustatzeko. Besteak beste, Ganbara Aretoa utzi egiten du elkarte eta eragileei euren ekitaldiak antolatzeko.

Gainera, webgunearen bitartez jasotzen ditu ikerlari, kazetari eta publiko orokorraren eskaerak, artxiboetako dokumentu eta irudi katalogoak kontsultatzeko.

Espazioaren alokairua



2025.etan, 3. solairuko Ganbara Aretoa alokairu moduan utzi da elkarteei ekitaldiak burutu ahal izateko, hala nola liburu aurkezpenak, formakuntza saioak eta grabaketak:

- **Bagera elkartea eta Hamaika telebista:** Bideo podcast baten grabaketa hilean behin
- **Leike produkzioak.** *EH Hegan* dokumentalaren grabaketaren prestaketa, Olatz Salvadorrekin batera.
- **ADECCO.** Formakuntza saioa eta urteko ebaluazio bilera
- **Iura Vasconiae.** *Les basques dans l'Atlantique* liburuaren aurkezpena

Artxiboa eta eskaerak



ARTXIBO ETA IRUDI ESKEARAK

Museoak ikerlari, kazetari eta pubilko orokorrarik artxiboko eta katalogo dokumentuen eta irudien eskaerak. Gai nagusiak, Euskal Balea, bakailoaren arrantza eta kartografia dira.



AHOLKULARITZA ETA IKERKETA

Eskeletako, Pedagogia eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua, mediazio eta hezkuntza departamentueko funtzionamendua eta museora datozen eskolei buruzko ezagutzak bereganatzeko.

Gainera, Museoko zuzendaritza zientifikoak, ikerlarie, idazle eta zinemagileei aholkularitza zerbitzua ematen die. Itsas gaiak, bale harrapaketa edota Donostiako historiari buruzkoa.



LIBURUTEGIA

Liburutegia 5300 liburuk osatzen dute eta horietako 1200 ganbaran dagoen liburutegian ikusi daitezke. Azken urteotan haur liburutegia indartzen gaude, bai espazioarengatik eta baita hurrek irakurri ditzazketen liburu kopuruagatik, Honekin bat komiteka txiki bat sortzen dago.

Museoa pertsona guztientzat

Gertu Kultura



Gertu Kultura atariaren bitartez Kultur eragileak eta erakunde sozialak harremanetan jarri ditu. Bertan gizarte erakundeek kultur eragileak egiten ditzuzten berri eta partehartzea sustatzen du.

Museoarentzako aukera bikaina izan da urteetan zehar lan egin duen elkarteekin harremanak sendotzeko eta talde berriak ezagutzeko aukera izan du,

Honekin bat, taldeekin lan egiteko formazio espezifikoak jaso ditugu, hala nola, "Museoak eta Alzheimer" buruzko formakuntza eta proiektuaren hasiera edota "Estigmatik gabeko kultura" formakuntza jaso dugu.

Hauekin batera, bi proiektuei hasiera eman diegu: "Museoa eta Alzheimer." eta egoilarri egoitzetan "Gertu Zubiak ". Proiektu honek Donostiako kaiko bizimodua zahar egoitzetara ezagutzeko aukera eman du. Urtean zehar museoan eta egoilarri egoitzetan egin diren jarduera desberdinetan 53 taldeek eta 766 pertsonak partehartu dute.

gertu
kultura
inklusioko
atea

Informazio gehiago



Kalitatea

Urte osoan zehar, museoak bere zerbitzuak hobetzen jarraitu du, bisitarienezako esperientzia eskuragarria eta aberasgarria eskaintzeko. Alde batetik, bisitarien asebetetze-maila neurtzeko inkestak egiten dira; bestetik, eraikinen mantentze-plana ondarearen zaintza egokia bermatzen du.

Bisitarien asebetetzea

2020an paperezko inprimakiak kendu ondoren, bisitariak galdeketa bat bete dezakete QR kode baten bidez, harrera-gunean eta aretoetan. Gainera, jardueretan izena eman dutenek Google Forms bidez ematen dute euren iritzia.

Mantenimendua

Urte osoan zehar, museoak bere instalazio eta sistemak jarraipen integrala izan du, bisitarien eta langileen segurtasuna eta egokitasuna bermatzeko. Kontrolatu dira klimatizazio- eta deshumidifikazio-sistemak, segurtasun-instalazioak (alarmak, kamerak, extintoreak), baita larrialdi-ekipoak, botikinak eta ticketeria eta inprimaketa sistemak ere. Horrez gain, hainbat intzidentzia erregistratu eta konpondu dira, museoko kalitatea, segurtasuna eta eraginkortasuna mantentzeko.




Komunikazioa



Euskal Itsas Museoa tokiko komunitateari modu hurbil eta informal batean gerturatu nahi zaio, bisitarientzat bereziki pentsatutako proposamenak eskainiz eta harreman zuzena sustatuz. Komunikazioaren bidez, museoak audientzia desberdindu eta zabaltzeko nahi du, mezuak eta hizkuntza egokituz, medioaren eta helburu-publikoaren arabera.

Horren bidez, euskal ondare itsasoa ezagutarazten da, sare sozialen bitartez harilak eta edukien ikusgarriak sortuz, historia eta kultura itsasokoaren berri modu zabalean eta erakargarrian emateko.

Webgunea



Gure webgunea itsasmuseoa.eus da eta astero ez bada hamabost egunoro eguneratzen dugu. Weborria batez ere Museoan egiten diren jardueren berri emateko eribeltzen da, hala ere azkeneko urtean Multimedia zein Berriak atalak ere landu egin dira. Azkeneko bi atal hauek itsas-historiarekin zerikusia duten gaiak sakontasunean lantzeko baliogarriak izan dira, honen adibide dira Santa Rita eta Santa Quiteriaren artikulua edo Mare Clausum zikloko bideoak adibidez.

Euskal Itsas Museoak atal ugari dauzka bere weborrian, guztien helburua itsas-historia publikoari gerturatzea da. Aurtengo beste atal bat gehitu da: Ipuskua 1025-2025, bertan ipuskua poriekturako egindako mapa interaktiboa ikusi daiteke, gure lurraldeko kostaldean dauden XVI.mendeko leku esanguratsuak ezagutzeko.

Beti ere gure weborrian ikusgai daude Hezkuntza edo bilduma atalak, lehenengoa irakasle ugari bisitatu egiten dute Museoarekin kontaktatu baino lehen. Bigarrena berriz ikertzaileek arakatu egiten dute, bertan gure piezak ezgutu ditzazkete, Agoteren egunerokoak irakurri edota Ciaboga aldizkariaren argitalpenak arakatu.

[Bisitatu webgunea](#)

Weborriaren datuak

Bisita batzabestekoa: 12268

Erreserben batzabestekoa: 118


Gehien bisitatutako atalak: Informazio praktikoa, gaur egungo erakusketak eta agenda.



Sare sozialak

Sare sozialetako komunikazioaren ardatza sare sozial bakoitzerako berariaz sortutako edukia eta Museoak egindako erakusketa eta jardueren buruzko informazioa zabaltzea izan da. Horrez gain, historiarekin eta itsas ondarearekin lotutako edukia zabaltzen du Museoak, eta horrek aberastasuna ematen die zabaldutako edukiei.

Mezua modu hurbilean eta bi norabideetan transmititu dugu, gaurkotasunarekin lotutako edukiekin. Gainera, komunikazio-formatu nagusi gisa ikus-entzunezkoen sorkuntzan eta erabileran esfortzu bat egin da, komunikazio-eredu berrien joerei jarraituz.



[Bisitatu gure sareak](#)

Instagram


Jarritzaileak
1981


Hazkundera
168


Bisitak
1300


Interakzioak
543

Facebook


Jarritzaileak
1420


Hazkundera
16


Bisitak
2500


Interakzioak
1400

Twitter


Jarritzaileak
568


Hazkundera
2


Bistaratzeeen
batazbestekoa
221

Youtube


Jarritzaileak
364


Hazkundera
18



Bistaratzeeen
batazbestekoa
5.2000


Interakzioak
50096

Difusioa




Prentsa



Prentsa-ohar ugari bidali dira hedabide zabala duten komunikabideetara, bai orokorrak bai tokikoak, ikusgarritasuna handitzeko.

Horrez gain, museoak itsas ondarea modu aktiboan sustatu du proiektuak aurkezteko prentsaurrekoen bidez, komunitateari bere ondare kulturalaren berri emanez eta museoako proiektu kulturalaren ezagutza areagotuz.

Newsletterra



Newsletterra gure publikoarekin zuzenean kontaktatzeko kanala da. Honi esker gure jardueren, inaugurazioen edo egunerokoaren berri eman dezakegu.

Orokorrean gure harpidedunek newsletterra irekitzen dute eta gainera click ere eginez. 2025ean bidalketa zerenda berri bat sortu dugu “familia tailerrak” gure jarduetara datozen familiei ekitaldien berri emateko eta arrera oso ona izan da.

Apirila | Abril 2025



FAMILIA TAILERRA! ¡TALLER FAMILIAR!



Hedabideak

Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideetan, bai tokikoetan bai estatukoetan, nolabaiteko inpaktua lortu da, eta hainbat jende eta komunikabiderengana iritsi gara, besteak beste:

Hedabideetan inpaktua

EAEko, bertako eta estatuko hedabideetan inpaktu handia lortu da. Urte honetan, proiektu ugari izan dira hurrengo hedabideetan oihartzuna izan dutenak:

Bertako komunikabideak

Bertako hedabide aldizkari, egunkari eta irratan presentzia;

- Irutxuloko Hitza
- Donostitik
- Kulturklik
- Donostia Kultura

EAEko hedabideak

- Egunkariak (Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Berria)
- Irratia (Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Onda Vasca, Onda Cero)
- TV (ETB1: SOS Kantak, Egun on)

Estatuko eta nazioarteko hedabideak

- Europa Press
- EFE
- Nomada Cultural
- MARE TV





Kaiko pasealekua, 24
20003 Donostia (Gipuzkoa)



+34 943 43 00 51



info@itsasmuseoa.eus



itsasmuseoa.eus



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



GIPUZKOA